

B

BARREN

TOKIKOM



**Gure Balioak saria jaso du
Jesus Bilbaok**



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Bartolome, 10 - Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

MASAJISTAK

22\12

VICTORIA IRAEGI

- Esku terapiak
• Kiropraxia
• Dranatzaille linfatikoa
• Osteopatia
• Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea)

Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko kalea, 40
(atzealdea) - Elgoibar
Tel.: 943 740 770

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia **BERRIA!**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonomeria

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359



Debabarrena ! Ekinean Emprende

Negozio-ideia baten bila zbiltza?

Zure enpresa propioa sortu nahi duzu?

Gustatuko litzaizuke enpresa bat elkarlanean
eratzeara?

Ez egin zalantzarik **EKIN!!!**
Debabarrean

EKITEN LAGUNDU

Ekintzaileen arteko herremanak indartzeko jarduerak sustatzea helburu duen programa
TAILER TRINKOAK

Nori zuzenduta? Gaitasun ekintzailea dutenei

Datak eta ordutegia: Azaroak 6, 7, 8, 13, 14 eta 15. 09:00etatik 13:00etara

Tokia: Debegesa, Elbar. Azitain 3 bis

PLAZA MUGATUAK!!! Eman izena DOAN. Bidali zure datuak ekintzaile@debegesa.com helbidera edo deitu 943 820 110 telefonora

EUSKADI EMPRENDE
E

AZAROA						
A	A	A	O	O	S	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Indian... euskaraz?

India da munduko bigarren estatu populatuena, hamargarren ekonomia eta demokraziarik handiena. 28 estatuk osatzen dute, eta 22 hizkuntza ofizial ditu. Horietako 3 daude hiztun gehien dituzten munduko hamar hizkuntzen artean: Hindia, ingelesa eta bengalera.

Egoera horrekin egiten dute topo gure enpresek, Indiara negozio aukera berriak zabaltzera joaten direnean. Han arrakasta izateko, hainbat alderdi kontuan hartzen dituzte. Horien artean ezinbestekoa zaie hizkuntzak kudeatzea, eguneroko lanetan hango eta hemengo lana koordinatzeko. Zein irizpide dituzte? Hobetu daitezke? Zentzuzkoa litzateke euskara eta gaztelania hara eramatea? Egokia da ingelesez bakarrik aritzea?

Indian lehen pausoak eman dituzten makina eremintaren arloko enpresen bizipenak ezagutu genituen IMHn, urriaren 24an antolatu genuen *30+10 Mintegia, hizkuntza-kudeaketa enpresan* jardunaldian. Zazpigarren urtez antolatu dugu, hizkuntzen kudeaketaren ikuspegitik enpresei, ikastetxei eta erakundeek ekarpena egiteko. Horretarako bildu ditugu, bertako eta nazioarteko esperientziak, praktika onak eta merkatuan diren baliabide eta zerbitzu eleanitzak.

Zazpi urte hauetan ikusi ahal izan dugu gero eta nabarmenagoa dela hizkuntza-kudeaketak enpresa eta erakundeen jardueran duen eragina. Horren lekuko ditugu azken hilabeteetako berriak. Euskal Herria Esnearen etiketak eta Enpresariaren azokaren arrakastak baieztatu digute euskal hiztunen komunitatea gero eta egituratuagoa dagoela merkatu gisa, eta gora

egiten ari dela euskara eta hizkuntzen kudeaketa erreminta eraginkortzat duten bertako enpresen kopurua. Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak prentsaurrekoetarako eta hornitzaileentzako onartutako hizkuntza-irizpideen inguruan entzundakoek erakutsi digute, oraindik ere, lana dugula ikuspegi hori sendotzeko. Mintegiko edizio guztietako hitzaldiak IMHko web gunean aurkituko dituzue (aurtengoak urtea amaitu baino lehen igoko ditugu).



Edurne Bilbao

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Urteotan ikusi ahal izan dugu hizkuntza-kudeaketak enpresa eta erakundeen jardueran duen eragina gero eta nabarmenagoa dela”

Banaketa sistema hobetzeko helburuarekin,
BARREN jasotzen duzuenon buzoletan pegatina txiki bat jarri dugu

BARRENeko banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik.
Gure banatzaileek eskertuko dute.

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

San Martin abizeneko elgoibartar baten peskizan

Jose Manuel San Martin Murua 1916an jaio zen Elgoibarko Palacio baserrian, eta, gaur, bizi izatera, 96 urte izango zituen. Haren gurasoak Jose Manuel San Martin (Palacio-koa) eta Josefa Murua (Arronakoa) ziren. Jose Manuel Getarian hil zen 1974an.

Jose Manuel Getariara ezkondu zen, eta han sortu zuen bere familia, baina Elgoibarko senideekin zituen harremanak erabat galdu zituen. Bazuen, ordea, anaia zaharrago bat (aitaren aldetik bakarrik anaia, bi amaren semeak omen ziren eta) Elgoibarren bizitzen jarraitu zuena.


Jose Manuelen seme den Getariako Enrique San Martinek jakin nahi du ea bere aitaren anaia horren seniderik ba ote den oraindik Elgoibarren, haiek ezagutu eta haiekin harremanetan jartzeko. Biziki poztuko litzateke halakorik gertatuko balitz.

Andres Alberdi ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



OHARRA

Azaroaren 1ean Domusantu eguna dela-eta, **jai zubia egingo du BARREN astekariak**. Ondorioz, datorren astean ez dugu aldizkaririk kaleratuko. Hurrengo alea azaroaren 9an jasoko duzue.



Iñigo
Lariz

Udazkena iristearekin batera txirrindularitza egutegiaren amaiera datorrela sumatzen dugu urte askoan pedalei eragiten aritu edo kirol hau gustuko dugunok. Garai honetan, talde kirol guztietan bezala, kontratu berritze eta fitxaketan saltsa hasten da. Azken urte

hauetan ez ditut gertuegitik jarraitu taldeen arteko fitxaketak, baina aurrean berebiziko amorrazioa sortu dit kontu batek. Euskaltelek taldekanpo utzi ditu Amets Txurruka eta Iban Velasco txirrindulariak. Taldearen kudeatzaileen esanetan, UCI (txirrindularitza erakunde nagusiak) sortu dituen eskakizun berrien ondorio besterik ez da izan. Bi kirolari hauek ez dituzte lortu taldeak gorengo mailan jarraitu dezan beharrezko diren puntuak, hortaz, taldekanpo utzi ditu Igor Glez, De Galdeanok, eta hauen ordezkariak dituzten kanpoko txirrindulariak fitxatu ditu.

“Txirrindularitza irabazi bakarrik egiten du, noski, baina taldekide gabe zaila da”

Ulergarria izan daiteke guzti hau errendimendu ikuspuntuari begiratzen badiogu soil-soilik. Hau da, bi hauek ez dituzte lasterketak irabazi eta ez dute punturik batu, beraz, kanpora. Baina txirrindularitza talde kirola dela argi izan behar dugu. Irabazi bakarrik egiten du, noski, baina taldekide gabe zaila (ezinezkoa ez esatearren) da hori, eta Amets eta Ibanen betebeharra hori izan da taldean, morrontza lanean aritzea, besteen mesedetan, norberaren emaitza alde batera utzita.

Nola liteke orain, beraien eginkizuna modu ezinhobean bete eta gero, taldekanpo uztea? Euskaltel orain arte talde berezia izan da, Euskal Herriko txirrindulariak oinarri izan ditu taldean, baina gauzak aldatzera doaz eta tristuraz esatera ausartzen naiz, gauzak ez direla berriz lehengoak izango.



Ainhoa
Lendinez

Kaixo, Iñi! Asteon jakin dugu Armstrong betiko zigortu duela UCIk, eta zazpi Tourrak kendu dizkiola. Azkenaldian, kirolak berak baino oihartzun handiagoa dute doping eta kontratu auziek, eta horrek ikaragarri amorratzen nau. Kirol gogorra da oso, eta denen miran dago, baina txirrindularitzaren alde txarrena ateratzen dutela iruditzen zait askotan, eta onari oso tarte txikia, txikiagia, ematen zaiola. Gurean Euskaltel-Euskadi da zaleen ilusioa. Ia goizero ateratzen naiz errepede-

ra, eta ederra da Eibar-Mutriku artean kolore laranja han-hemen ikustea. Zitzuan aurreratzen gaituzte, haien gurgilari segika egiten ditugu metro batzuk, serieak izango balira bezala, eta pozarren itzultzen gara etxera. Telebistan ikusten ditugun asko gure inguruko herrietako gazteak dira. Nik ez ditut bereziki ezagutzen, baina entzun dut langile borrokatuak direla, bai Txurruka eta bai Velasco, baita gainerakoak ere. Akaso kirol hau eta kirol honetan aritzen direnak kondenatuta daude? Malda piko amaigabeak igotzea gutxi ez, eta aldapa gogorrenak bizikletatik jaitsita, hedabideetan eta kalean igo behar dituzte? Zuk diozun moduan, gregario lanik gabe, taldeburuak lorpen gutxi izango lituzke. Eta txirrindularitza talde-kirola bada, taldeburua ez da ezer, laguntzailerik gabe.

“Euskaltel-Euskadiren filosofia eta estrategia zein diren ez dakit zehazki”

Gogoan daukat Amets lehenengoz Parisko podiumera igo zenekoa. 2007an, txirrindulari lehiakorrena izan zelako. Geroztik, eta erorikoak eroriko, hiru proba handienetan borrokan aritu dela iruditu zait beti. Euskaltel-Euskadiren filosofia eta estrategia zein diren ez dakit zehazki, baina etxeok atarian utzi, eta kanpokoei atea zabaltzen hasten bada, susmoa daukat zaleak euskal txirrindulariei segika hasiko direla, eta ez horrenbeste Euskaltel-Euskadiri. Eta litekeena da, uztailean, Tourmaletoko maldetan, kolore laranja baino gehiago, beste taldeetako koloreak nagusitzea errepede bazterretan.

Akatsak zuzenduz

Joan zen asteko alean 'Zozoak beleari' ataleko testuak oker argitaratu genituen. Noemi Otegi jarri genion testua Aina Sedanorenaren, eta Sedanori jarri geniona, berriz, Otegiarena. Barkatu hutsegitea.

Hizkuntzen kudeaketarako '30+10' mintegia egin dute aste honetan IMHn

Hizkuntzen kudeaketarako tresnen eta mekanismoen berri eman dute

Euskara eta hizkuntzen kudeaketari buruzko 30+10 mintegia egin zuten eguaztenean IMHn. Hizkuntzen kudeaketaren ikuspegitik enpresei, ikastetxei eta erakundeei baliabideak eta tresnak ematea da mintegiaren helburua, eta horretarako hemengo eta nazioarteko enpresen esperientziak, praktika onak, eta merkatuan dauden baliabide eta zerbitzuen berri eman zuten.

Zazpigarren urtez antolatu du mintegi hori Erreminta Makinaren Institutuak, eta aurten nazioartera begira jarri dira. Izan ere, Elgoibarko enpresetako ordezkariak atzerrira joaten direnean ezinbestekoa izaten da hizkuntzak kudeatzea, eguneroko lanak burutu ahal izateko. AFM, Danobat, Juaristi eta Korta enpresek eman zuten horrelako esperientzien berri mintegian.



Era berean, Europako enpresa-praktika eleanitzen mapa eta ikuspegia azaldu zituen Tecnaliak.

Lanbide Heziketari dagokionean, hizkuntza katea ikastetxetik enpresara

nola bideratu daitekeen aztertu zuten hainbat enpresetako ordezkariak eginitako mahai-inguruan. Txandakako Inge-niaritza eta Bikain ziurtagiria ere izan zizuten hizpide.

Okerrik ezean, abendurako amaituko dituzte Mendaroko ikastolako patioa estaltzeko obrak



Ikasturte hasierarako amaituta egon behar zuen Mendaroko ikastolako patioa estaltzeko obrak, baina inplikaturako aldeek gehiago zehazterik nahi izan ez duten arazoak tarteko, udan luzaro egon zen gelditu obra hori, eta ondorioz, hasieran agindutakoa baino beranduago amaituko dute. Mendaroko Udalak jakinarazi du, okerrik ezean, abenduko lehenengo asterako amaituko duela Altuna y Uria enpresak obra hori.

Ikastolako patioa estaltzeko obra Kataluniako Blur-Arquitectos enpresak irabazi zuen lehiaketa bidez (58 proiektu aurkeztu ziren), eta Udalak Altuna y Uria enpresari esleitu zion obra (martxoaren 14an izenpetu zuten kontratua). Iragarritakoa beteaz, uztailearen 1ean hasi zituzten lanak, eta, berez, abuztuaren 31a arteko epea jarri zieten bukatzeko. Tartean aldatetak izan dira, baina, eta hasierako proiektua bera ere aldatu da zenbait gaurzatan. Blur-Arquitectos enpresak egindako proiektuan, esate baterako, sabaiari eusteko zutabeak burdinezkoak ziren, baina Udalak jakinarazi du porlanezkoak izango direla orain, eta orokorrean estruktura prefabrikatua izango dela. Patioaren estaldurak txapa metaliko bat eramango du, eta bi isolatzaile (ohikoa eta deck estaldura). Argizulo edo sabaillehoak izango ditu sabaiak (azaleraren %20 inguru hartuko dute), eta horrek patioa sartzan den argia uniformeagoa egingo du. Harmailak, berriz, lehengo leku berean egingo dituzte, baina orain lau alturakoak izango dira.

Ikastolako patioaren gaineko obraren harira, Mendaroko Udalak jakinarazi du ikastolako umeek frontoia "noiznahi" erabiltzeko aukera dutela.

Izena **Tomas Madinabeitia**



Tomas Madinabeitia apaiza hil zen urriaren 19an, 69 urte zituela. Eskoriatzako Mendiola auzoan jaio zen Madinabeitia 1943an, eta hamabi anai-arreben artean hamaikagarrena zen. Tolosan hasi zen apaiz lanetan, eta ondoren Eskoriatzako parrokoa izan zen. 1981ean joan zen estreinako misiolari Kongora (Afrika), baina malariak jota Euskal Herrira itzuli zen, 1986an. Azken sei urteak Elgoibarren egin zituen, eta hainbat herritar joan ziren berarekin Kongora, Maria Eugenia Kortaberria, Jairo Berbel eta Agustin Lazarobaster mendarolarra, esate baterako.

Irudia **Oinezkoentzako pasabidea**

Hilabete honetan hasiko dituzte Gabriel Krutzelaegi kalean oinezkoentzako pasabidea egiteko lanak, eta ondo bidean, 2013ko martxorako amaituko dituzte. Pedro Mugurutz eta Gabriel Kurutzelaegi kaleetan igogailu bana jarriko dituzte: bata, Toletxeko haur-parkean jarriko dute, eta bestea, Gabriel Kurutzelaegiko Gaztelekuaren parean. Oinezkoentzako pasabide batek lotuko ditu igogailu horiek, eta pasabide berria trenbidearen gainetik joango da. Horrez gain, eskailerak ere egingo dituzte, eta horri esker, igogailua ez dabilenean ere kale batetik bestera joateko aukera izango dute erabiltzaileek. Lan horiek 520.356 euroko kostua izango dute (BEZ barne), eta Eusko Trenbide Sareak eta Elgoibarko Udalak finantzatuko dituzte erdibana.



Herritarren parte-hartzea arautzeko bilerak

Herritarrek Udalean duten parte-hartzea sustatu nahi du Elgoibarko Udalak, eta horretarako hainbat bilera egingo ditu. Aste honetan herriko eragileekin egin dute bilera bat, eta datorren astelehenean egingo dute bigarrena. Saio irekiak dira, eta interesatua dagoen orok hartu dezake parte. 18:30ean hasiko da saioa, udaletxeko pleno aretoan. Partaide-tza arautzeko prozesu honetan hiru lantalde bereiztu dituzte: herritarrak, udal teknikari eta ordezkariak, eta herriko elkarteak. Lehenengo fasean bilerak lantaldeka egiten dihardute, eta azaroan tailer bateratuak egingo dituzte. Lehenengo tailerra azaroaren 15ean izango da, eta bigarrena azaroaren 22an.

Debabarreneko turismo eskaintza bateratzeko bilera egindo dute azaroaren 7an

Eskualdeko turismo gastronomikoa bateratzeko, Debabarreneko Produktu Turistiko Gastronomikoa-ren Kluba eratu nahi du Debegeesak. Horretarako bilera egingo dute azaroaren 7an, eta turismo zein gastronomia zerbitzuak eskaintzen dituzten eragile publiko nahiz pribatuak gonbidatu dituzte. Bilera Debegeesak Eibarren duen egoitzan izango da, 17:30ean.


Aiastiako zozketa

Jose Agustin Olaberi egokitu zaio Aiastiako jaietan zozketatutako txahala. Zenbaki sariduna ez zen agertu, eta 5543 ordeko zenbakiak eman dio saria.



JESUS BILBAO

ENPRESARI OHIA



“Ez dago eguneroko zailtasunek ematen dutena baino eskola hoberik”

Ardurak zahartu egiten ei du, erre, baina ez da Jesus Bilbaoren kasua (Elgoibar, 1940). 16 urterekin hasi zen lanean, Danobaten, eta geroztik ardura handiak hartu eta kargu ugari bete ditu erreminta makinaren sektorean, harik eta 2005ean erretiroa hartu zuen arte. Goratu, Maherholding, Invema, AFM, Acomhe, Tekniker, Fatronik, Ekor, Adegil, Adegilan, eta IMHko kontseilu edota zuzendaritzetan parte hartu izan du, besteak beste, eta dikta-dura garaian, abertzaletasunak bultzatuta, Elgoibar Ikastolako presidente ere izan zen. Gaur egun, Fasys eta Anateusk proiektuetan dabil laguntzen, eta joan zen eguenean Debegearen Gure Balioak saria jaso zuen. Elkar-
rrikketa osoa: www.elgoibARREN.net webgunean.

Zer da zuretzat sari hau?

Berezia da, baina hemen garrantzitsuena Debegesak balioak suspertzeko egiten duen lana da. Balioen kontzeptu horiek indartzeko, tresna batzuk erabiltzen ditu, eta tresna horietako bat da urtero antolatzen duten sariketa hau. Nere aurreko biak balore heroikoengatik nabarmendu zituzten [Maria Teresa Gantxegi eibartarra eta Gemma Agirregomezkorta elgoibartarra], baina nire kasuan aipatu dituzten balioak gehiago dira betebeharrak, obligazioak. Ez dira aparteko ezer, eta normaltzat hartu beharko genituzke. Halaxe izan dira gure denboran. Baliteke azkeneko urteetan sistema honetan beste balore klase batzuek hartu izana indarra eta gaur dena dirutan neurtzea, baina hori ez da beti izan. Nire kasua anekdotikoa da beraz.

“Ekintzailea naiz, bai, baina ez sortzez. Urteetako prozesuak egin nau ekintzaile”

“Ekintzaile izateko jaioa”, “ausarta”, “sortzailea”, “ekimen handiko gizona”, “eskualdearekiko konpromisoa”... aipatu zituzten sari bakanetan.

Ni familia pobre batean jaio nintzen, eta 16 urterekin lanean hasi nintzen, Danobateko bulego teknikoan, apendiz. Ez nuen unibertsitatera joateko aukerarik izan, baina zorte handia izan nuen garai hartan oso berritzailea zen enpresan hasi nintzelako lanean, espiritu sozial handiko enpresan. Orduan Danobat ez zen kooperatiba oraindik, baina bai sozietate berezi bat, sartzen ginen momentutik langileak bazkide egiten ginelako, dirurik jarri gabe. Danobat hazten joan zen, eta eskola izugarria izan zen niretzat, oso jende ona, trebea eta jantzia topatu nuelako han. Lehenengo urteetan lanean eta Eskola Profesionalean ibili nintzenaldi berean, eta zirkunstantzia batzuk tarteko, akaso azkarregi, bulego tekniko buru egin ninduten [1961]. Ondoren, Danobatek, jakina, kooperatiba izan behar zuela erabaki genuen, eta gerente egin ninduten gero [1966].

Iritsi zitzaizun beste bide bat hartzeko ordua ere. 1974an Danobat laga eta Maherholding sortu zenuten.

Bai. Danobat lagatzeko momentu hori nahiko gogorra egin zitzaidan, batzuek ez zutelako ulertu. Hala ere, ikusi nuen beste modalitate batetako enpresa egin behar zela, baina ezin zela kooperatiba izan, prozesu horretan sozietate anoninoak sartu zirelako. Eta halaxe Danobat laga, eta Cruz Arriola, Juan Gabilondo eta beste batzuekin batera, Maherholding sortu genuen. Hemen ez zen ezagutu ere egiten berba hori: holding. Eredua bera Inglaterretatik ekarri genuen. Enpresa berriak sortzea zen Maherholdingen funtzioa.

Maherholding eratu aurretik, hala ere, eta artean Danobaten zeundela, Caja Laboral Popularreko Batzorde Errektoreko bazkide ere egin zintuzten. Zer oroitzen daukazazu?

Lau urte egin nituen, eta ikaragarri ikasi nuen. Sekulako taldea topatu nuen: On Jesus Maria Arizmendarreta, Alfonso Gorroñogoitia, Jose Mari Ormaetxea, Jesus Larrañaga, Felix Aldabaldetrek... Sormen handiko gizonak ziren. Ikaragarri ikasi nuela diot, baina beharbada, ikasi behar nuena baino gutxiago ikasi nuen, gauza larregitan nenbilerako. **Inork ez du zalantzan jarriko ekimen handiko gizona zarenik.**

Ekintzailea naiz, bai, baina ez sortzez. Ekintzaile egin, egin, naiz. Urteetako prozesuak egin nau ekintzaile. *El hombre es él y su circunstancia* (Ortega y Gasset). Pertsona on eta langile askorekin lan egiteko zortea izan dut, eta sarritan nik ditudan gabeziak besteek estali dituzte, eta alderantziz. Baina oraingoan, niri egokitu zait bandera eramatea.

26 urterekin Danobateko gerente zinen. Gaur egun ia pentsaezina da hori.

Gai labainkorra da hori, baina zera pentsatzen dut: 15 urterekin lanean hasten denak oztopo asko gairiditu behar dituela. Ni lanean hasi nintzen urte hartan, 1959an, sekulako krisia egon zen, gainera. Ez zuen gaurkoaren antzik, baina erreminta makinaren azkena zela ere pentsatu genuen. Ez dago eguneroko zailtasunek ematen dutena baino eskola hoberik. Esango nuke, gainera, beste tankera bateko pertsonak ginela gu orduan.

Zer esan nahi duzu? Gaurko gazteek lanari “beldurra” diotela, akaso?

Jakintza unibertsitatean hartu duenak badu oinarri bat, eta sarritan pentsatzen du horrek halako postu jakin batean kolokatzeari ahalbi-

detuko diola. Eskola gabea, baina, prozesu ezegonkor batean bizi da hasieratik, eta horrek berak lana bilatzera eta ardurak hartzera bultzatzen du. Garbi dago geuk ere ez dugula nahi izan gure seme-alabentzako guk izan genuena, pentsatzen genuelako guk izan ez genuen hori hobea zela, baina, beharbada, gauza batzuetan oker geunden. Arizmendiarretak beti esaten zuen lana dela kapital inportanteena. Baina lana egin, egin, behar da. **Lana eskubidea dela esango dizu norbaitek eta gaur egun ez dela betetzen.**

Lana eskubidea da, bai, baina landu behar den eskubidea. Aipatu ditugun enpresa horiek guztiak sortu zirenean, ordu asko egiten genituen lanean kobratu gabe, eta etxera eramaten genuenarekin justu-justu izaten genuen argia eta fideoak ordaintzeko. Pentsatzea orain beste modu batean sortuko ditugula gauzak oker handia da. Ez gara kontziente, baina modu horretan pentsatuta, kapitalismo basati hori ari gara elikatzen. Sistema basati horrekiko askatasun bat lortzeko, sendo egin behar dugu lan, eta austeritatean, luxurik gabe, bizitzen ikasi behar dugu. *Ser y no poseer*. Ni, adibidez, 40 urte egin arte, gurasoen etxean egon nintzen bizitzen, alokairuan. Eta ordu-rako ardura postu askotatik pasatutakoa nintzen. Baina ez pentsatu gerora zoriontsuagoak izan garenik! Zoriontasuna egokitzapen prozesu bat da, eta hor bai guk zorrea izan dugu, behetik gora etorri garelako.

“Lana eskubidea da, bai, baina landu behar den eskubidea”

Ikasi eta lan. Txandakako Ingeniaritza gogorazi dit horrek. EHUren eskaintzan sartu berri da orain. Zer balorazio egiten duzu? Oso positiboa. Eredu horrekin maiteminduta nago ni. Lana eta ikasketak uztartzea da eredurik onena. Eskolan informazioa lortzen du ikasleak, baina jakintza informazio hori aplikatzen duenean lortzen du.

Kapitalismo basatia aipatu duzu. Euskadiko Kutxan ibilitakoa zara zu. Finantza munduan ibilitako baten ikuspuntutik zer balorazio egiten duzu?

Caja Laborala aitzindaria izan da. Nik pentsatzen dut bai Caja Laboralaren eta bai oraingo Kutxabanken ereduak biak direla oso onak gure Euskal Herriarentzat, gizarte ekintzan inbertitzen dutelako. Kutxabanken "bank" horrek erreparo pixkat ematen du, baina ez, gaur daukaguna ona da. Zaindu beharrekoak dira bi ereduak. Globalizazio honekin, hori bai, ez gaude arriskutik salbu. **59ko krisia aitatu duzu. Orain ere ez dira garai onak. Zein da burua ur azalera ateratzeko bidea?**

Erreminta makinan ibili naiz ni beti, eta krisialdian gure sektorea izan da beti jausiten lehenengoa. Oraingoan ez, baina. Esportazioetan sendo gabiltza, eta horri esker, besteak baino hobeto gaude orain. Krisiak beti egon dira, eta egongo dira, baina egia da oraingo hau dela dagoen krisirik zatarrena. Gauza asko egin dira ikaragarri gaizki eta pentsatu gabe inbertitu da dirua. Eta, gainera, kontrola erabatekoa da.

49 urte egin dituzu erreminta makinaren sektorean. Zeintzuk dira gaur egun dituen beharrak handienak?

Badirudi bankuen egoera ez dela oso ona. Zorpetze handia dute, eta goitikako kontrol handia, eta jakina, dirua emateko orduan, beldur handiarekin jokatzeko dute. Eta hori izan daiteke ahultasun handiena.

Behin baino gehiagotan aipatu duzu denetik behar dela. Gure bailarako enpresa hein handi batean erreminta makina da. Espezializazio hori ona edo txarra da?

Espezializazioa eta jakintza eskutik doaz beti, eta berez, espezializazioa ona da, baina, jakina, arriskua ere badu. Hala ere, ezin gara abantailekin bakarrik gelditu. Arriskuak ere hartu egin behar dira.

Arizmendiareta aipatzen duzu sarri. Elkartasuna lehenesten zuen hark. Krisi garai honetan, badago enpresa munduan elkartasunarentzako tokirik?

Sozietate anonimoetan zaila da, baina ez bakarrik ugabazen ikuspuntutik! Kooperatibetan, aldiz, indar handiagoa du elkartasunak. Batean lanik ez badago, bestera bideratzen dira langileak.

Enpresa mundua alde batera laga gabe, El-

goibar Ikastolako presidente ere izan zinen. Zer oroitzapen duzu garai hartaz?

Ni iritsi nintzenerako garrantzitsuen egin da zegoen ikastolan. Ikastolari forma juridikoa emateko sartu nintzen ni han, eta niretzako, jakina, kooperatibaren eredu egokitzeko zen ondoen ikastolara. Presidente sartu aurretik, berriz, puntualki saiatzen nintzen laguntzen. Akordatzen naiz Juan Jose Araolaza etorri zitzaidala behin esanez Madrildik ez zetorrela dirurik eta ia aterten bat jotzeko aukerarik ikusten nuen. Garai hartan AFMren bitartez sarri joaten nintzen ni Madrilerara, eta beste gestio bat egitera joan ginen aldi batean, han joan ginen Cruz Arriola, Iñaki Pascual eta hirurok Kultura ministroarengana, Jesus Mari Arizmendiarekin bitartekaritza lagun. Carrero Blanco hil bezperan izan zen. Carrero Blanco hil zuten lekutik ehun metrora geunden gu.

“Informazioa biltzen dute eskolan, baina hori aplikatzean lortzen dute jakintza”

Erretiroa hartu zenuen, baina lanean jarraitzen duzu, besteak beste, Anateusk proiektuan. Nola daude kontuak?

Proiektu berritzailea da, ezinduekin eta ezinduentzat lan egiteko proiektua, baina garai txarra da proiektuan sakontzeko. Diru-laguntzak behar ditugu, eta administrazio publikoek ez daukate dirurik. Elgoibar-ko Udala, adibidez, oso ondo portatu da, lokala laga digulako eta programa batzuk egiten ere lagundu digulako, baina guk gehiago nahi edo behar genuen. Eneko Kortabarria "sozioak", baina, pasio bereziz bizi du proiektua, eta ilusioz gaude.

Ardurak zahartu egiten ei du, baina zure kasuan ez da betetzen.

Etorriko da gelditzeko eguna. Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Nazioarteko Urtea da 2012a, gainera. Deformazio antzeko bat daukat

nik. Erretiroa hartu nuenean ikasteari ekin nion, eta orduan lanean segurtasunaren gainean landu nituen ideia batzuetatik proiektu bat abiarazi zuten gero: Fasys. Lanean segurtasunaren inguruan daukagun kultura, errua beti ugabazabari botatze hori, ez da zuzena. Errua denena da, eroso ez zaizkiolako betaurrekoak edo arnesa jartzen ez dituen langilearengandik hasi eta ugabazabari, edo alderantziz. Segurtasunaren eta osasunaren gaineko jokabidea balore bat izan behar da, eta ez lehentasun bat. Lehentasunak aldatu daitezkeelako, baina baloreak ez. Balore bat geure egiten badugu, oso zaila da hori aldatzea. Lortuko bagenu enpresan denek barneratzea garrantzitsuen osasuna eta segurtasuna dela, gauza asko automatikoki egingo genituzke. Babes neurriak jaurri eta erabili egingo genituzke.

Ez zinen zu noiz jubilatuko zinen, beraz.

Nik errespetatzen ditut hala pentsatzen dutenak, baina ni ez nintzen pozik jubilatuko. Hala ere, obligazio moral bat nuen jubilatzea. Arrazoizkoa hori zen: nik beste bati lekua lagatzea. Jubilatuko, gainera, badaukagu lanean jarraitzeko aukera gero ere. Nagusilan, adibidez. Hori bai merezi dutela sariren bat! Nik uste dut gizarteari eta, bereziki pertsona askori, asko zor diedala. Hori bai, nik laguntzeko aukeratu dudako bidea erraza da Nagusilaneko aukeratu dutenarekin alderatuta. Nik dakidanean laguntzen dut, bizi osoan egin dudako horretan, eta haiek, berriz, inork nahi ez dituztenak egiten dituzte. Haiena, bai, meritu! Handia da egiten dutena.

Makina bat ordu sartuko zenituen zuek hango edo hemengo erakundeetan. Nola konpondu zara familia eta lana uztartzeko?

Sasoi hartan etxeoandrea, ama, izaten zen etxeke lan guztiez eta seme-alaben heziketaz arduratzen zena. Haiena bai meritu!. Gure tentsioak, gure buruhausteak... denak aguantatu behar izaten zituzten. Nik, gainera, asko bidaiatzen nuen, eta egonaldi luzeak egiten nituen etxetik kanpora, makinak saltzeko. Eta orduan ez zegoen sakelako telefonorik eta ezer!. Orduko emakumei omenaldi bat egin beharko genieke.

EAJk irabazi ditu hauteskundeak Elgoibarren eta Mendaron



EH Bildu koalizioa izan da bigarren indarra

EAJ alderdiak lortu ditu boto gehien Elgoibarren eta Mendaron, eta EH Bildu izan da bigarren indarra bi herrietan. PSE-EE izan da hirugarren alderdi bozkatuena, baina hala ere, alderdi sozialista bera izan da 2009ko hauteskundeekin alderatuz gero, boto gehien galdu dituen. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko joera berbera errepikatu da Elgoibarraren nahiz Mendaron.




Elgoibarren EAJ alderdiak irabazi ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Jeltzaleek 2.328 boto eskuratu dituzte, botoen %39,29 hain zuzen ere. 2009ko hauteskundeekin alderatuz, 78 boto gutxiago eskuratu ditu aurten EAJk. Bigarren indarra EH Bildu koalizioa izan da. EH Bilduk 1.959 boto eskuratu ditu, hain justu ere, botoen %33,06. EH Bildu osatzen duten alderdiek 2009an lortu zituzten botoekin alderatuz gero, 464 boto gehiago eskuratu dituzte aurten (Ezker Abertzalea 2009an legez kanpo laga zuten). Eta hirugarren indarra, PSE-EE izan da, 988 botoekin (botoen %16,68). Orain lau urteko hauteskundeetan, sozialistek 1.462 boto lortu zituzten. Alderdi Popularrak, berriz, 354 boto lortu ditu, orain lau urte baino 73 boto gutxiago.

8.902 elgoibartar zeuden botoa ematera deituta, eta horietatik %67,8k baliatu dute boto eskubidea. Abstentzioa %32,2koa izan da, 2009an baino puntu bat txikiagoa, hain zuzen ere.

Mendaron ere EAJ nagusitu da, 405 botoekin. 2009an baino 55 boto gutxiago lortu dituen arren, lehenengo indarra da Mendaron alderdi jeltzalea. Bigarren EH Bildu izan da, 351 botoekin. EH Bildu osatzen duten alderdiek guztira 178 boto lortu zituzten Eusko Legebiltzarrerako azkeneko hauteskundeetan, 2009an. Boto gehien lortu dituen hirugarren alderdia, berriz, PSE-EE izan da: 110 boto. 2009ko hauteskundeetan baino 98 gutxiago. Abstentzioa %33,47koa izan da Mendaron (2009an %34,05koa izan zen).



EMAITZAK Elgoibar

										
	09	12	09	12	09	09	09	09	12	09
KULTUR ETXEA	1.015	884	485	305	277	202	131	--	722	155
JUBILATUAK	162	152	57	34	31	14	23	--	89	14
P. MUGURUZA	363	378	309	236	121	90	35	--	360	102
SAN ROKE	366	315	139	103	83	88	54	--	268	56
URAZANDI	193	180	283	181	63	48	29	--	183	55
ALTZOLA	50	166	27	20	41	11	2	--	138	13
IMH	257	253	162	109	65	55	32	--	199	32
GUZTIRA	2.406	2.328	1.462	988	681	508	306	--	1.959	427

- Ezker Abertzalearen botoak 2009an baliogabeak izan ziren arren, BARRENEK boto haiek kontatu egin zituen. EH Bildu koalizioa osatzen duten ezker Alternatiba alderdia 2009an ez zegoen, Ezker Batuaren barruan zegoen.
- Ezker Batua alderdi bakarra zen 2009an. 2012ko hauteskundeetan, aldiz, bi alderditan banatuta aurkeztu dira: Ezker Anitza batetik, eta Ezker Abertzalearekin batera bestetik.

ELGOIBARKO ALDERDIEN BALORAZIOAK



ALFREDO ETXEBERRIA

“Emaitzak ikaragarri pozten gaitu”


Eskerrik asko EAJ-PNV alderdiarengan konfiantza jarri duzuen herritar guztioi eta igandean bozkatzera gerturatu zinetenoi. Emaitzak ikaragarri pozten gaitu. Dagoeneko bakoitzak eginak izango dituzenez emaitzen inguruko azterketak, lehen bitartez etorkizunaren irakurketa positibo bat egin nahi dugu. ETarik gabeko hauteskunde hauek normaltasunerantz pauso garrantzitsua izan dira. Herritar guztiok egongo gara ordezkatuak legebiltzarrean. Aukera paregabea memoria, bakea eta bizikidetzaren inguruko irakurketa bateratua eta adostua egiteko. Jaurjaritza berriak eta gizartea osatzen dugun pertsonok ekonomia indartu beharko dugu, kalitatezko eta beharretara egokitutako hezkuntza, industria eta zerbitzuak sustatzeko. Gizartearen nahiaren ukazioa ez dator bat garapenarekin. Adostasunak lortuz gure auzkeren jabe izateak indartu egingo gaitu. Horretarako aukeratu ditugu legebiltzarkideak: hitzaren bitartez adosteko. Hauek dira EAJ – PNV alderdiko ordezkarien konpromisoak.



JOSE LUIS IBARTZABAL:

“Legebiltzarrean hirutik bi abertzaleak izango dira”

Eskerrik ematen hasi nahi dugu balorazio hau, bai igandean botoa eman ziguten herritar guztiei eta baita ere, nola ez, kanpainen zehar laguntza eskaini diguten eta lanean jardun duten denek. Esker oneko hitzak besterik ez dauzkagu. Biba zuek! Bestalde, zorionak ematea baino ez, hauteskunde hauetan gailendu den EAJri. Hauteskunde hauek argazki berri bat ekarri dute desitxuraturata zegoen Legebiltzarrera eta herritarrek mezu argia bidali digute guztioi. Legebiltzarrean, hirutik bi abertzaleak izango dira. Dei horri erantzuten asmatzea tokatzen da. Herri moduan jardutea oinarrikoa izango da. Emaizte dagokionez, orokorrean ona da 21 legebiltzarkide lortzea. Hala ere, egia da, Gipuzkoako emaitzek azterketa sakonagoa egitea eskatzen digutela eta zer ikasia ere badaukagula. Elgoibarren, jaitsiera arinagoa izan bada ere, antzeko joera izan dugu. Ez dugu lortu Udal Hauteskundeetan mugiarazi genuen boto kopurua aktibatzea, baina aldaketaren aldeko indarrak bazen jarraitzeko oinarri sendoa daukagu. Lanean jarraitzea tokatzen da, gatazkaren konponbidea, justizia soziala eta burujabetzaren bidean.

				Besteak		Zuriak		Baliogabeak		Abstentzioa	
12	09	12	12	09	12	09	12	09	12	09	12
135	57	41	22	14	63	13	26	293	17	1.162	1.041
15	4	2	1	6	16	4	5	31	1	201	165
76	40	21	16	21	44	7	17	121	5	605	616
46	14	11	6	13	17	5	7	84	4	312	280
37	26	25	6	12	34	3	4	67	9	331	320
9	11	6	0	0	6	0	3	41	1	80	154
36	16	6	5	8	15	6	8	65	4	289	279
354	168	112	56	74	195	38	70	702	41	2.980	2.855

abertzalea, Aralar eta Eusko Alkartasuna alderdi politikoak bakarka aurkeztu ziren 2009ko hauteskundeetan.

Batua-Berdeak, bestetik.

FERNANDO SUAREZ:



“Ez genuen horrelako jaitsierarik espero. Ez genuen horrelako zigorrik merezi”

Alderdi Sozialistak jaitsiera handia jasan du, eta ez genuen horrelakorik espero. Patxi Lopezek gauzak ondo egin dituela uste dugu, eta lehendakari izaten jarraituko balu ez litzateke murrizketarik etorriko, baina herritarrek ez dute lan hori aintzat hartu. Espero dut EAJk ez hartzea Espainiako Gobernuaren eredia, eta espero dut murrizketarik ez egitea. Krisiaren ondorioz legealdi zaila izango da. Urte gogorra izan da aurtengoa eta datorrena ez da hobeia izango, beraz, espero dut Masek Katalunian egin zuena ez errepikatzea. Familia askok zailtasunak dituzte hilabete amaierara iristeko, eta laguntza sozialak berdin mantendu edo handitu egin behar direla uste dut. Elgoibarrri dagokionean, 400 boto inguru galdu ditugu orain lau urteko hauteskondeekin alderatuta. Kontuan izan behar da orduan ezker abertzalea ez zegoela, baina ez genuen horrelako jaitsierarik espero. Ez genuen horrelako zigorrik merezi. EAJri egokitu zaio herri hau gidatzea, eta ondo jokatzeko espero dut. Erabaki beharko dute norekin osatu nahi duten Gobernuak: gu aukeratzen bagaituzte, ez da murrizketarik egongo.

JAVIER NUÑEZ:



“73 elgoibartarrek nire alde ez egitea erabaki dute eta horrek kezkatzen nau”

Hautesleak galtzea ez da ona, eta Elgoibarko PPk hautesleak galtzen jarraitzen du. Ez dakit ni ondo ez nabaratu behar den, edo PPk egiten duen politikarekin pozik ez daudelako, baina oraingo honetan 73 elgoibartarrek nire alde ez egitea erabaki dute, eta horrek arduratzen nau. Elgoibartar horiek PPrenganako konfiantza zergatik galdu duten jakitea gustatuko litzaidake. PPren jarraitzaile direnek edota ez direnek ez badidate adierazten niri edo alderdiari zein den konfiantza falta horren arrazoia zaila egingo zait eurek nahi duten bezala ordezkatzeko.

Nire lana ahal dudan ondoen egiten ahalegintzen naiz, hala ere, huts egiten badut eta PPren jarraitzaile elgoibartarrek ez badidate jakinarazten, nekez zuzenduko ditut hutsegiteak. Edozeinen eskura nago, PPko botoemailea izan edo ez. Nahi dutena esateko edo eskatzeko beste ordezkari bat naiz.

EMAITZAK Mendaro	09		12		09		09		09		12		09		12		12		Besteak		Zuriak		Baliogabeak		Abstentzioa	
	09	12	09	12	09	09	09	09	09	12	09	12	12	09	12	12	09	12	09	12	09	12	09	12	09	12
UDALETXEA	460	405	208	110	80	113	48	--	351	30	34	17	19	8	9	34	14	6	83	6	517	488				

- Ezker abertzalearen botoak 2009an baliogabeak izan ziren arren, BARRENEK boto haiek kontatu egin zituen. EHBildu koalizioa osatzen duten ezker abertzalea, Aralar eta Eusko Alkartasuna alderdi politikoak bakarka aurkeztu ziren 2009ko hauteskundeetan. Alternatiba alderdia 2009an ez zegoen, Ezker Batuaren barruan zegoen.
- Ezker Batua alderdi bakarra zen 2009an. 2012ko hauteskundeetan, aldiz, bi alderditan banatuta aurkeztu dira: Ezker Anitza bate-tik, eta Ezker Batua-Berdeak, bestetik.

MENDAROKO ALDERDIEN BALORAZIOAK



IRUNE BERASALUZE

“Legebiltzarrean abertzaleok gehiengo osoa izango dugu, eta azpimarratzekoa da”

EAJk argi eta garbi irabazi ditu hauteskundeak. EH Bildurekin esparru abertzalean genuen lehian, espero ez zen aldearekin irabazi dugu, eta alde hori Gipuzkoan lortutako emaitzei esker izan da. Mendaroko emaitzak ere horren adierazle dira. Hautesleek EH Bilduri abisua bidali diote: urte eta erdi honetan EH Bilduk egin duen kudeaketa eta erakutsi duen jarrera zigortu dituztela esango nuke.

ETArik gabe izango dugun lehen Legebiltzar honetan abertzaleok gehiengo osoa zabala izango dugu, eta hori ere azpimarratzekoa da. Akordio-en garaia da, bai egoera ekonomiko larri honetatik denon artean irteko, eta baita bakea eta elkarbizitza sendotzeko eta herri honentzako estatus politiko berri bat lortzeko. Pertsonak eta haien ongizatea izan dira beti EAJren politikagintzaren ardatza, eta krisi garai honetan gure asmoa inor bide bazterrean ez uztea da. Azkenik, eskerrak eman nahi diegu EAJrengan konfiantza jarri duten mendaroak guztiei.



MENDAROKO EH BILDU

“Argi eta garbi geratu da euskal herritarrek aldaketaren alde daudela”

Mendaroko EH Bilduk hauteskunde hauetan herrian izandako emaitzen gaineko balorazio positiboa egiten du. Gutxi gorabehera, Foru Hauteskundeetan jaso genuen boto kopuru bera jaso dugu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Ez dugu 2009ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeekin konparatzeko aukerarik, orduan legez kanpo utzi gintuztelako. Argi eta garbi geratu da euskal herritarrek aldaketaren alde daudela. Aldaketaren eta burujabetzaren alde inoiz egon den indar metaketa indartsuena ordezkatzeko dugu. Emaitza oso onak izan ditugu, azken urteetako ilegalizazioak kontuan edukita. 276.989 boto jaso ditugu, eta 21 legebiltzarkide edukiko ditugu.

EH Bilduren hautesleek koalizioak proposatutako aldaketaren alde egin dute krisi ekonomikoari, politika egiteko moduari eta eskubide politikoei eta zibilei dagokienean.

JOSE ANTONIO RODRIGUEZ




“Sentsazio gazi-goza geratu zait emaitzekin, baina ondo eutsi dugu”

Hauteskundeetako emaitzek sentsazio gazi-goza utzi digute, baina PSE-EE alderdiak ondo eutsi duela uste dut. Lan handia egin dugu, eta egoera ekonomikoa gogorra den arren, Euskadiko ongizate maila mantendu egin dugu. Herri-tarek gure lana aintzat hartuko zutela uste genuen, eta Patxi Lopezen lanari balio handiagoa ematea espero genuen. Inkestek EAJ eta EH Bilduren arteko berdinketa posible izan zitekeela esan zuten, eta horren aurrean, herritar askok EAJri eman diote botoa. Testuinguru horretan, PPren zenbait boto ere EAJra joan dira, eta tradizioz PSE-EErenak diren beste boto batzuk ere bai. Hala ere, PSE-EE alderdi indartsua da: bost euskal herritarretatik batek PSE-EEri eman dio botoa, eta herritarren %20k babesten gaituzte. Euskal gizartearen ordezkari garrantzitsua gara.

LEGEBILTZARRAREN OSAKETA

Abertzaletasunak garaipen argia lortu du Eusko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskudeetan. Legebiltzarreko eserlekuen hiru laurdenak EAJ eta EH Bilduren esku gertatu dira, eta, boto kopuruari dagokionez, botoen %60 lortu dute; PSE-EE, PP eta UPyD, berriz, botoen %30ean geratu dira.

Azken urtean galdutako botoak berreskuratu ditu EAJk, PSE-EEren eta PPrek kaltean, bereziki. Bestetik, ezkerreko alderdi subiranisten indar metaketa, boto galera jasan duen arren, indartsu sartu da legebiltzarrean, eta abertzaletasunaren bi joera historikoen arteko aldea murriztu egin da. %55 EAJren aldekoa eta %45 EH Bilduren aldekoa. Espainiako Konstituzioaren aldeko alderdiek, berriz, boto galera nabarmena izan dute, eta ordezkari ahul batekin geratu dira.



Botoak: EAJ: 383.565, EH Bildu: 276.989, PSE-EE: 211.939, PP: 129.907, UPD: 21.492



IÑAKI LAZAROBASTER EH Bilduko legebiltzarkidea izango da

EH Bildu koalizioak bederatzi eserleku lortu ditu Gipuzkoan, eta, honenbestez, Iñaki Lazarobaster elgoibartarra izango da legebiltzarkideetako bat, zerrendetan zazpigarren postuan aurkeztu zuen-eta EH Bilduk.



Mila esker
Zuen konfiantza
eman diguzuen guztioi



Meliton zubi azpiko berdegunea zikinkeriaz beteta dago: “Meliton zubitik San Pedro kale aldera dagoen berdegunea zaborrez beteta dago. Belarra mozten dutenean, bereziki, zabor guztia bistan geratzen da. Plastikozko poltsa asko daude, eta aulki bat eta errepedeko kono bat ere ikusi daitezke uretan. Jendea oso zikina da, eta edozer botatzen du edozein lekutan. Botatzen duenak gaizki jokatzen du, baina norbaiten ardura izan beharko litzateke zikinkeria hori garbitzea. Beraz, dagokionari eskatu nahi diogu berdeguneak garbitzea”.



Autoen gurpilak zulatu dituzte Aiaastian: “Zapatu goizean bi autotako gurpilak zulatuta agertu ziren Aiaastian, guztira hiru gurpil. Eta ez da lehenengo aldia izan! Abuztuaren 25ean ere, horietako auto bati hiru gurpil zulatu zizkioten, autoaren jabea oporretan zegoen bitartean. Oraingoan ere, bi auto horien jabeak oporretan zeuden. Hemendik aurrera ezingo gara oporretan joan, edo bestela, autoak gurekin eraman beharko ditugu”.

Trenbide kaleko aparkalekuan ezin da autoa edozein modutan laga: “Trenbide kaleko aparkalekua oso estua da, eta ondorioz, auto batzuk traba handia egiten dute. Bateria aparkatzen duten auto luzeek ez dute lekurik lagatzen gainerako autoak pasatzeko. Joan zen astean hantxe geratu nintzen ez aurrera eta ez atzera, auto batek bidea oztopatzen zidalako, eta atzetik beste auto bat neukalako. Azkenean biok atzeraka irten behar izan genuen. Eskertuko nuke autoa aparkatzen duenak begiratzea ea pasatzeko leku nahikoa utzi duen, eta hala ez bada, ez dezala hor aparkatu. Mila esker”.



Lorituanekeo aldapa oso ondo geratu da. “Oso arrisksua zen Lorituanekeo aldapa, eta obrak egin ostean oso ondo geratu da. Lurra ez da lehen bezain labainkorra, eta gainera, baranda bat jarri dute oinezkoak segurtasun handiagoz ibiltzeko. Jende asko erortzen zen aldapa horretan, eta espero dugu aurrerantzean istripu gutxiago egotea. Herritarren segurtasuna hobetzeko lanak sustatu behar dira”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barran@elgoibarkoizarra.com 943 744 112




I. URTEURRENA

MANUELA ANSOLA AYERDI

2011ko ekainaren 1ean hil zen.

*“Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen goxoa ezerk ez du lausotuko”*

Familiakoak



Iñaki Izquierdoren argazki erakusketa inauguratuko dute gaur

Kantauri aldeko baserriarren bizimodua erakutsiko du

XXI. mendeko pasiegoak' dauka izena Iñaki Izquierdo sestaoarraren azken lanak, eta bilduma hori jarriko du ikusgai Kultur Etxean. Espainian bizirik dirauen fenomeno soziologikoa erakutsiko du Izquierdok: pasiegoak. Ez da beraien jatorria ezagutzen: judutarrak direla diote batzuk, arabeak direla uste dute beste batzuek, birkonkista garaian Kantabria eta Burgosko mendietara iritsi zen suitzar talde bat izan zitekeela ere uste da... Kantabria eta Burgos inguruan bizi izan dira, eta orografia zailak isolaturik gaur arte biziraun dute. Lan hau Kantabriako Gobernuako Abeltzaintza Sailak eskatuta egin zuen Izquierdok 2008 eta 2010. urteen artean. 83 argazkirekin argitaratu zuen liburua, eta orain jendaurrean erakutsiko ditu erretratu horiek. Gaurtik aurrera, azaroaren 9ra arte egongo dira ikusgai, Kultur Etxean.



Zukgua prozesuko bigarren bilera egingo dute domekan, Kultur Etxean



Hego Euskal Herrian independentzia eta sozialismoaren aldeko gazte antolokunde berria abiatzeko Zukgua prozesua jarri dute martxan, eta Elgoibarko gazte batzuen ekimenez, Elgoibarrera ere ekarri dute prozesu hori. Joan zen astean egin zuten lehenengo batzarra, eta 30 bat gazte batu ziren guztira. Esperientzia aberasgarria izan zela adierazi dute antolatzaileek, eta dinamizatzaileak aurrera jarraitzeko gogotsu agertu dira. Domeka honetan egingo dute bigarren bilera, 16:00etatik aurrera, Kultur Etxean. Aurreko batzarrera joaterik izan ez zutenak gonbidatu dituzte parte hartzera.

Talo tailerra egingo dute azken zapatuko ferian

Talo tailerra izango da urriko azken zapatuko ferriako berrikuntza. 12:00etan hasiko da saioa Kalebarren plazan, eta adin guztietako herritarrek hartu dezakete parte. Lastur Aterpetxeko Maitane Beristainek eskainiko du tailerra, eta taloak egiten ikasi ondoren, bakoitzak bere taloa txorizoa-rekin jateko aukera izango du. Horrez gain, ez dira ohiko ekitaldiak faltako biharko azokan: Elgoibarko baserrietako produktua jarriko dituzte salgai, ganadu erakusketa egingo dute Aita Agirre plazan, eta Kale Kantarietako dute eguna. Hilabete honetan Herri Eskolako Guraso Elkarteak jarriko du txosna, eta Elgoibarko harategi eta baserrietako produktuekin eginiko pintxoak salduko dituzte.

Marrazketa ikastaroa hasiko da azaroaren 5ean

Marrazketa ikastaroa eskainiko du Egur arte tailerrak, Udalaren laguntzarekin, azaroaren 5etik abenduaren 20ra. Astelehen, martitzen eta egue-netan emango dituzte saioak, 18:30etik 20:30era. Izena emateko 666 557 538 telefonora deitu behar da. Horrez gain, iazko ikasleen lanen erakusketa jarri dute Kultur Etxean, eta azaroaren 7ra arte egongo da zabalik.

Lau ikastaro eskainiko dituzte azaroan, jabetze eskolaren barruan

Jabetze eskola jarri du martxan Udalak, eta horren barruan lau ikastaro eskainiko dituzte azaroan. Azaroaren 5ean autodefentsa tailerra hasiko da, eta hiru saio eskainiko dituzte guztira. *Hiltzen duten amodioak* tailerra azaroaren 10ean hasiko da, eta autoaren mekanikari buruzko ikastaroa azaroaren 30ean. Parte hartzeko interesa dutenek 943 744 132 (Nora Ramon) telefonoan eskuratu dezakete ikastaroari buruzko informazio gehiago. Programa horren barruan, bestalde, sare sozialei buruzko ikastaroa eskainiko dute ikastetxeetan.

Azaroaren 17an jokatuko da Karakateko Igoera, eta horren harira, Karakatera mendi irteera ere antolatu dute aurten

Oier Ariznabarreta durangarrak dauka Karakateko Igoerako errekorra (28:17)

Ohi legez, Behobia-Donostia herri lasterketa jokatu osteko zapatuan jokatuko da Karakateko Igoera: azaroaren 17an. 11:00etan abiatuko dira korrikalariak Kalegoen plazatik, eta Karakatera arte 710 metro inguruko desnibela gainditu beharko dute. Bidea ez dago markatuta, eta horixe da hain justu ere Karakateko Igoeraren bereizgarrietako bat. Kalegoen plazatik irten eta Karakatera arte korrika igo behar da, norberak egokien ikusten duen bidetik. Izene-mateak egunean bertan egingo dira plazan, 10:00etatik aurrera.

Iaz, 88 lagunek parte hartu zuten, eta bi errekor ondu zituzten. Gizezkoetan, Oier Ariznabarretak 43 segundoan ondu zuen Aritz Kortabarria arrasatearrak zeukan errekorra. Ariznabarretak 28:17ko denboran osatu zuen bidea. Iñigo Lariz iritsi zen bigarren tontorrera, eta elgoibartar batek sekula egin zuen denborarik onena egin zuen: 29:05. Gizezkoetan hirugarrena Iñigo Lazkano mendaroarra izan zen, 29:30eko denborarekin. Emakumezkoetan, berriz, Maite Maiora nagusitu zen (35:45), Nerea Amilibiaren aurretik.

Mendi irteera

Karakateko Igoeraren harira, aurten, Karakatera mendi irteera ere antolatu du Morkaiko mendizale elkarteak. Adin guztietako lagunentzako irteera dela aurreratu dute, eta irteera azaroaren 17an, 9:00etan izango dela. Informazio gehiago nahi izanez gero Morkaikoren bulegoan (Errosario kalea, 17), 943 740 297 telefono zenbakian edota www.morkaiko.net webgunean lor dezakezue.



tzako irteera dela aurreratu dute, eta irteera azaroaren 17an, 9:00etan izango dela. Informazio gehiago nahi izanez gero Morkaikoren bulegoan (Errosario kalea, 17), 943 740 297 telefono zenbakian edota www.morkaiko.net webgunean lor dezakezue.

‘Euskal Herriko parke naturalak ezagutzuz’ egitasmoa antolatu du Morkaikok



Morkaiko mendizale elkarteak *Euskal Herriko parke naturalak ezagutzuz* egitasmoa jarri du martxan, eta dagoeneko iragarri dituzte lehenengo bi irteerak. Azaroaren 11n izango da lehenengoa, Aralarreko Malloetara. Ibilaldirako izena ematen dutenek alderik alde zeharkatuko dituzte Malloak. 23 kilometro inguruko ibilaldia izango da, eta mendizaleek 1.100 metroko desnibelari egin beharko diote aurre. Antolatzaileen arabera, zortzi bat orduko ibilaldia izango da.

Azaroaren 18an egingo dute bigarren irteera, Urbasara. 22 kilometro bueltako ibilaldia izango da hau, 7-8 bat orduan egitekoa.

Bi irteera hauetara 8:00etan irtengo dira Elgoibartik, eta 19:00ak alderako itzuliko dira. Ibilaldi bakarrerako izena ematen duenarentzako hauexek dira prezioak. 30 urtez azpiko gazteak: 8 euro; Morkaiko bazkide direnek: 10, eta bazkide ez direnek 12 euro. Bietara apuntatzen direnentzako deskontu bonuak izango dira. Informazio gehiagorako: www.morkaiko.net.

Behobia-Donostia lasterketarako autobusa

Elgoibarko Kiroi Patronatuak Behobia-Donostia lasteketara joateko autobusa antolatu du. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena, azaroaren 7a baino lehen. Patronatuko bazkideek 13 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 16 euro. Autobusa goizeko 8:30ean irtengo da, King Kong-etik.

Iñigo Lariz eta Imanol Garaizabalen taldea hirugarren Raid Picosen

Iban Letamendi oñatiarrak eta Iñigo Lariz eta Imanol Garaizabal elgoibartarrek osatutako taldea hirugarren sailkatu zen Europako mendietan jokatzen den Raid Picos de Europa orientazio proban. Bi egunetako proba izan zen, eta 9 ordu eta 35 minutu behar izan zituzten baliza denak aurkitzeko.

Alberto Revueltak irabazi du Donostiako Robers Saria lasterketa

44:46ko denboran egin zituen hamabost kilometroak



Alberto Revuelta elgoibartarrak irabazi zuen domekan Donostiako Robers Saria hamabost kilometroko herri lasterketa. Eguraldiak ez zuen lar lagundu, baina hala ere, Revueltak ez zuen aurkaririk izan. 47:46ko denboran osatu zuen ibilbidea, eta bera izan zen 48 minutuko denboraz azpitik egin zuen bakarra. 38 urte ditu Revueltak, eta aspaldian geldirik eduki duten lesioak gainduta, sasoi bete-betean dago elgoibartarra.

Domekan, esate baterako, 3 minutu eta 11 segundoan osatu zuen kilometroa. Revueltak 40 segundoko aldea atera zion bigarren sailkatuari, Kike Sebastian donostiarrari. Hirugarren Ruben Lanz anoetarra sailkatu zen.

Emakumezkoetan, berriz, Kaoutar Boulard 23 urteko atleta marokoarra nagusitu zen, 54:52ko denborarekin. Amaia Ostolazak egin zuen bigarren eta Claudia Behobidek hirugarren. Guztira, 4.900 korrikalari zeuden izena emanda.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 1 – Zalla 2 (3. maila)
Lazkao 1 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
Elgoibar 3 – Aloña Mendi 0 (1. jubentilak)
Lazkao K.E. 1 – Elgoibar 4 (Ohorezko Kad.)
Elgoibar 3 – Soraluze 2 (Kad.)
Elgoibar 1 – Beasain 1 (Infantil txiki)
Urola K.E. 1 – Elgoibar 3 (Neskak)
Bergara 5 – Elgoibar 2 (Neskak alebinak)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile. 6 – Carlopel 2 (Nazional B)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 22 – EPLE 16 (2. mailako nag.)
Zestoa 22 – Lagunak 11 (2. mailako nag.)
EPLE 22 – Lagunak 3 (2. mailako kad.)
Añorga 22 – Lagunak A 9 (2. mailako kad.)
Oiarpe 22 – Lagunak B 1 (2. mailako kad.)

ESKUBALOI

CB Romo 19 – Alcorta Forging Group. 20 (Sen. mut)
Usurbil 20 – Gabaz Elgoibar 29 (Mut. Senior)
Tecnifuelle Elgoibar 30 – Ereintza 17 (Sen. Neskak)
Bergara 26 – Beristain Elgoibar 40 (Jub. mut.)
Lauko Elgoibar 13 – Aiala Zarautz 31 (Jub. Nesk.)
Hotel Txarriduna 29 – Ereintza 13 (Kad. mut.)
Pneumax Elgoibar 17 – Urrietako 35 (Kad. mut.)
Casa Astigarraga Elgoibar 31 – Aiala 20 (Kad. nesk.)
Ereintza Beisser 17 – Ikus Elgoibar 26 (Kad. nesk.)
Eibar A. 16 – Bankoa Elgoibar 22 (Kad. nesk.)
Bergara 9 – Deca Elgoibar 15 (Infantilak. mut.)
Murgil Elgoibar 58 – Aiala Zarautz 2 (Infantilak nesk.)
Cometel Elgoibar 18 – Pulpo 20 (Infantilak. nesk.)
Udarregi B 21 – Aterpe Elgoibar 27 (Infantilak nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Minxetan)

Zapatua, 27

16:00 Elgoibar – Idiazabal (Pref.)
12:00 Elgoibar – Arrasate (Ohorezko kadeteak)
16:30 Elgoibar – Aretxabaleta (Ohorezko infantilak)
18:00 Elgoibar – Usurbil (Neskak)

ESKUBALOI (Kiroldegian)

Eguena, 25

9:45 Ikus – Bera Bera Egia (Kad. neskak)
11:15 Beristain – Katilu (Jub. mut.)
12:45 Gabaz Elgoibar – Arrasate E.B. (Senior)
Zapatua, 27
9:45 Deca Elgoibar – Eibar A (Inf. mut)
11:00 Bankoa – Eibar B (Inf. mut)
12:15 Aterpe – Pulpo (Inf. nes)
16:00 Elgoibar – Ereintza (Alebin mut)
17:30 Beristain – Urola Laztimendi (Jub. mutilak)
19:30 Alcorta – San Antonio Pamplona (Sen.nazio)
Domeka, 28
9:45 Astigarraga – Pulpo (Kad. neskak)
Zapatua, 27
10:45 Lauko – Pulpo (Jub. nesk)

ESKU PILOTA (Ikastolako frontoian)

Baixakua, 26

21:15 Lagunak – Loiolatarra (2. mailako nag.) PALA
22:00 Lagunak – Loiolatarra (1. mail. nag.) PALA
Domeka, 28
11:00 Lagunak – Oiarpe (2. mailako kad) ESKUJ
11:45 Lagunak – Intxurre (2. mailak kad) ESKUJ
12:30 Lagunak – Mundarro (2. mailako nag) ESKUJ

San Migel taldeko Jabier Osoro aukeratu dute Gipuzkoako bolari onena

Bukatu da Euskadiko XXIII. hiru txirlo bolo txapelketa, eta Asola Berri taldeko Jose Mari Larreategi nagusitu da, 20 txirlorekin. Taldeka ere Asola Berri B gailendu da, 47 txirlorekin, eta elgoibartarrak, San Migel taldekoak, sailkatu dira bigarren, Asola Berri A taldearen aurretik. Bada beste datu aipagarri bat ere, baina. Izan ere, Jabier Osoro San Migel taldekoa aukeratu dute aurten Gipuzkoako bolari onena (32 txirlo).

Mailaz maila honakoak izan dira saridunak: Emakumezkoetan: Idoia Muñoz (Floreaga) / Jubentiletan: Garikoitz Caballero (Garmendipe) / Infantiletan: Bruno Mendes (Floreaga) / Nagusietan: Jose Mari Larreategi (Asola Berri) / Bikoteka: Patxi Olabarria eta Luis Guenaga (Iruzubieta). Bizkaiko bolari onena, berriz, Luis Guenaga izan da, Iruzubieta taldekoa.

LANA

ESKAERA

- Neska eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Orduka nahiz interna. ☎ **686 052 084**
- Mendi, baso zein baserri inguruak garbitzeko sasoiko mutila eskaintzen da. ☎ **699 690 965**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **636 362 251**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **669 311 385**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **649 044 223**
- Mutila eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **692 332 871 / 943 257 815**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **690 177 259**

- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Adin eta maila guztiak. Azterketa ofizialetarako prestaketa. Talde txikiak. ☎ **680 858 550 / 943 741 594**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. ☎ **660 551 781**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **618 050 902**
- Gizon arduratsua, lanerako prest. Nagusiak zaintzen eta sukaldari laguntzaileran lanetan esperientzia. ☎ **631 053 415**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Ospitalean ere bai. Umeak ere zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin ere bai. ☎ **699 609 190**
- Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Gida baimena eta autoa ditut. ☎ **662 589 611 / 943 250 296**
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut. Ikasgai guztiak. ☎ **696 295 098**

ESKAITZA

- Sukaldari laguntzailea behar da Elgoibarko taberna batean lan egiteko. ☎ **687 051 789**

ETXEBIZITZAK

- Logela bakarreko etxea alokatzen dut Errosario kalean. ☎ **630 374 124 (Naiara)**
- Etxea alokairuan Elgoibarren. Bi logela, sukaldea, despentsa, egongela. Jantzita. Igogailuarekin. Erdigunean, nahiko berria. ☎ **655 711 334**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **680 808 125**
- Apartamentu berritua alokatzen dut Altzolan. ☎ **656 750 160**
- Babes ofizialeko pisua salgai, Arregitorren kalean. 57m2. Logela bat, sukaldea, egongela, bainugela, ganbara. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko prest. ☎ **687 281 719**
- Etxea alokairuan, Errosario kalean. Hiru logela, egongela eta berogailu zentrala. ☎ **639 353 331 / 943 742 034**

GARAJEAK

- Marradun garajea alokatzen dut Santa Ana kalean. ☎ **652 716 724**

- Garaje itxia alokairuan, Jausoro plazan. Hilean 50 euro. ☎ **633 633 990**

BESTELAKOAK

- Bikientzat ume-aulkia erosiko nuke, egoera onean balego. ☎ **696 295 098**
- La Unión Caza y Pesca elkarteko bazkide izateko akzioa salgai. ☎ **605 775 325**

KINTOAK

- 1974an jaiotako eta Ikastolan ibili zirenek afaria egingo dute azaroaren 16an, Txariduna jatetxean. Interesatuak 50 euro sartu beharko dute Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 23 0071033857. ☎ **677 260 878 (Ifigo) / 678 674 142 (Anjel)**



ESKERTZA

LUIS MARI GALARRAGA AROSTEGI

2012ko urriaren 18an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



II. URTEURRENA

ENRIQUE PEREZ PEREZ

*Elkar maitatzen dugunok,
ezin bizi gintezke urrunduta.
Bihotz bihotzez, etxeokok.*

2010eko azaroaren 1ean hil zen,
90 urte zituela.





• Zorionak, **Ugaitz**, urriaren 13an 2 urte egin zenituelako. Muxu asko etxekoan partez, gure bitxito.



• Zorionak, **maittia**, urtetxo bat bete duzulako. Asko maite zaitugu, Elia. Muxu handi bat, aita eta amaren partez.



• Zorionak, **Galder**, urriaren 31n 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, familiakoan, eta bereziki Narraoren partez.



• Zorionak, **Elder**, joan zen zapatuan 8 urte bete zenituelako. Familiakoan partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Aihara**, herenegun 8 urte bete zenituelako. Familia osoaren partez, eta bereziki Irati eta Julenaren partez.



• Zorionak, **Jakes**, urriaren 31n 5 urte egingo dituzulako. Muxu potoloak, familiakoan, eta bereziki, Markel eta Eleneren partez.



• Zorionak **etxeko ponpoxori**, urte bat egin duelako. Muxu handi bat etxekoan partez, eta muxu potolo bat Dunaren partez.



• Zorionak, **Xabati** Ur-tetxo bat! Muxu handi bat, aitaxo eta amaxoren partez.



• Zorionak, **Ayelen**, hilaren 24an 5 urte egingo dituzulako. Osabazeben eta aiton-amonen partez.



• Zorionak, **Ibon**, hilaren 28an urtetxo bat beteko duzulako. Patxo handi-handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Juani eta Javil** 25 urte bete dira ezkondu zinateketik! Ederki ospatu genuen zapatuan denok elkarrekin. Segi holaxe!



• Zorionak, **Ibai eta Naroa**, zuen urtebetetzeengatik. Hilaren 24an eta 30ean beteko dituzue urteak. Muxu handi bat, familiakoan partez.



• Zorionak, **Janire**, 7 urte egingo dituzulako. Kanarietatik bueltan ospatuko dugu! Zazpi muxu handi, izeko eta osabaren partez.



• Zorionak, **Beñat eta Intzal** Dagoeneko hiru egun besterik ez dira falta 6 urte betetzeko! Muxu handi bana guztion partez, maiteok!



• Zorionak, **Maule eta aitaxo!** Zuentzat, mila patxo!

AGUREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU:

Erretratu bakarreko agurra 4€.
Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €.
Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.
Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Udazken Festa
HH2/LH2
Urriak 27, zapatua
11:30etan, Kalegoen Plazan

Muxu txiki a mai ke

26 barixakua

Erakusketa

18:30 'XXI. mendeko pasiegoak'

Iñaki Izquierdo argazkilariaren lanak jarriko ditu ikusgai Ongarri argazki elkarteak. Kultur Etxeko erakusketa gelan, azaroaren 11ra arte.

Zine forum

21:30 Kafea eta filma

Haizeak antolatuta, kafea pastekin eta pelikula emanaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

27 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai. Aita Agirre plazan ganadu erakusketa egingo dute.

12:00 Kale kantariak Kalebarren plazan.

Aisialdia

11:30 Udazken festa Atxutxiamaikak antolatuta, Kalegoen plazan.

28 domeka

Antzerkia

16:30 'Jon Beldurgabea' Herriko Antzokian.

29 astelehena

Tailerra

17:00 Artea Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Dolitika

19:00 Ezker abertzalearen herri batzara Ezker abertzaleak hauteskundearen gaineko balorazioa egingo du. Kultur Etxean.

30 martitzena

Tailerra

18:00 Literatura Irene Nemirovskyresn Suite francesa liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordu-tegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekako 3:00etan, ordu-betez atzeratu beharko da ordularia.



ZINEA

'Amor bajo el espino blanco'

27, zapatua: 19:00/22:15
28, domeka: 19:00
29, astelehena: 21:30

'Tadeo Jones'

1, eguna: 16:30
4, domeka: 16:30

'Si de verdad quieres'

1, eguna: 19:00
2, barixakua: 22:15
3, zapatua: 19:00/22:15
4, domeka: 19:00
5, astelehena: 21:30

OKINDEGIA

28 domeka: FOTERO 1 eguna: IBARRENEA 4 domeka: EIZAGIRRE

BOTIKA ORDUTEGIAK 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez	Gauetz	Egunez	Gauetz
9:00 - 22:00	22:00 - 9:00	9:00 - 22:00	22:00 - 9:00
26 Zabaleta	Barrenetxea	3 Zabaleta	Garitaonandia
27 Barrenetxea	Barrenetxea	Goizez: Garit.	
28 Barrenetxea	Barrenetxea	4 Zabaleta	Garitaonandia
29 Ibañez	Etxeberria	5 Barrenetxea	Barrenetxea
30 Garitaonandia	Garitaonandia	6 Ibañez	Etxeberria
31 Etxeberria	Etxeberria	7 Garitaonandia	Garitaonandia
1 Fernandez	Yudego	8 Etxeberria	Etxeberria
2 Yudego	Yudego	9 Fernandez	Barrenetxea

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384



Urriaren 31n BASEBALL

txapelketa Ludotekan.
Azaroaren 1ean eta
2an itxita

Igande honetan
PING-PONG
txapelketako final
handia jokatuko da.
Etorri zure lagunak
animatzera!



Irailean...

JAIOTAKOAK



Danel Gurrutxaga
Galdona Abuztuak 7
Egoitz eta Miren



Danel Idueta Lorenzo
Irailak 13
Aitor eta Patricia



Jon Garate Bastida
Irailak 7
Mikel eta Nora



Julen Jimenez Alberdi
Irailak 14
Jesus eta Ainhoa

Intza Unanue Elizagirre
Irailak 6
Iñaki eta Amaia

Adam Karmaoui
Irailak 9
Yousseff eta Dalila

Mara Gutierrez Garcia
Irailak 16
Javier eta Sonia

Paola Morales Ruiz
Irailak 12
Victor eta Ana

Noa Castrillejo Alonso
Irailak 16
Erroka eta Maria Esther

Zakaria Malki
Irailak 26
Mhamed eta Najat

Mikel Lopez de Sabando
Tercero Irailak 29
Andoni eta Maria Elena

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira

943 744 112 telefonora edo bidalite-postaz

barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

Argazkia jartzeagatik **3 €** ordaindu beharko dituzte Elgoibarko Izarrako bazkideek, eta gainerakoek, **4 €**.

EZKONDUTAKOAK

- Ibon Etxaniz eta Noelia Cid Irailak 21
- Josu Idiakéz eta Judith Zabala Irailak 21
- Andoitz Agirregomezkorta eta Ekiñe Alkorta Irailak 29

HILDAKOAK

- Fernando Coro Etxeandia • 51 urte • Irailak 1
Teodora Elustondo Gorriti • 82 urte • Irailak 4
Carmen Ortuondo Areitioaurtena • 82 urte • Irailak 11
Jose Maria Aranberri Urrutia • 66 urte • Irailak 13
Jose Loiola Iriondo • 79 urte • Irailak 13
Loli Suarez Oleaga • 88 urte • Irailak 18
Dolores Caballero Flores • 86 urte • Irailak 18
Antxoni Irureta Aranberri • 66 urte • Irailak 27

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA
eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak

Erietxe zentruetan
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27

(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekkoa) 635 756 295

ESKERTZA

TOMAS MADINABEITIA ELORZA

Apaiza

2012ko urriaren 19an hil zen, 69 urte zituela.

San Bartolome Parrokiak eta sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



